



**EUSKAL HERRIKO LAN-KOSTUAK,  
EUROGUNEKOAK BAINO APALAGOAK**

Gasteiz, 2012ko urriaren 12a

## O-SARRERA


Patronala eraso latza ari da egiten soldaten aurka. Instituzioak, berriz, soldata jaisteko erabakiekin, jarrerarik atzerakoeienetan kokatu dira. Enpresarioen elkarteek erabiltzen duten argudioetako bat da Euskal Herriko lan-kostuak oso altuak direla eta batez bestekoaren gaineratik ari direla hazten.

Alabaina, estatistika ofizialek agerian uzten dute ez dela egia patronalak esandakoa. Eurostat Europar Batasuneko estatistika erakundeak aldian-aldian lan-kostuei buruzko datuak argitaratzen ditu. Hain zuzen, EBko estatuetakoko orduko lan-kostuaren berri eman ohi du, eurotan.

## I- EUSKAL HERRIKO LAN-KOSTUAK, EUROGUNEKOAK BAINO APALAGOAK

Ondorengo grafikoan ikus daiteke 2011ko hainbat herritako lan-kostua zein izan zen:

### **GUZTIRAKO LAN-KOSTUA (EURO/ORDU).** **EUROPA, 2011**



Iturria: Eurostat, INE

Europar Batasunean lan egindako orduko kostuetan izugarriko desberdintasunak daude. Lana garestien Norwegian dago (44,2 euro), eta ondoren Belgikan (39,3 euro), Suedian (39,1 euro), Danimarkan (38,6 euro) eta Frantzia (34,2 euro). Beste muturrean ditugu Bulgaria (orduko 3,5 euro), Lituania (5,5 euro) eta Letonia (5,9 euro). Euroguneko batez besteko orduko lan-kostua 27,6 euro dira, eta Ebko 27 estatuetakoko balioa orduko 23,1 eurotan dago.

INERen bidez lortutako datuen arabera, Hego Euskal Herriko lan-kostuak, aldiz, eurogunekoen azpitik daude, eta hainbat estatuetakoa baino askoz beherago (esaterako, Alemania, Herbehereak, Frantzia, etab.) Hain zuzen, 2011n orduko lan-kostua EAEn 24,7

eurotan zegoen, eta Nafarroan, 22,9eurotan, hots, orduko 2,9 eta 4,7 euro gutxiago, hurrenez-hurren.

Orduko lan-kostuaren bilakaerari dagokionez, Eurostatek eta INEk emandako datuek adierazten dute azken hiru urteetan EAEn 1,8 euro gehitu dela, eta 1,6 Nafarroan; beraz, euroguneko antzeko igoera izan dute (1,8euro).

## II- ONDORIOAK

- Hego Euskal Herriko lan-kostua euroguneko batezbesteko mailatik behera dago, eta Alemania edo Frantziaren moduko estatuetakoa baino askoz txikiagoa da.
- Lan-kostuak bertan ez dira batez besteko maila europarra baino gehiago hazi.
- Patronalak behin eta berriz datu faltsuak ematen ditu, inongo iturri ofizialetan erkatu gabeak, soldatei egin nahi dien eraso zuritzeko.
- Euskal enpresak lehiakorrago izan daitezen lan-kostuak murriztu behar direla diotenek aurrez galdutako joko batean sartzen dira. Nola lehiatu Bulgariarekin, orduko 3,5 euroko kostua duela? Nork nahi du langileak halako esplotazio eta miseria egoeran egotea?
- ELAk ugazabei ez die babesik emango lan-baldintzen aurka daramaten eraso horretarako. Aitzitik, soldaten erosteko ahalmena hobetu beharra dago aberastasuna modu justuagoan bana dadin. Honek ez dio lehiakortasunari kalterik egiten; aldiz, enpresen etekinenezako tartea gutxitu egiten da.
- Soldatak defenditzea enpleguaren alde egitea da. Edonork daki biztanleria pobretuz eta erosteko ahalmena gutxituz langabeziara bidaltzen dela milaka eta milaka langile.